

'Gomutan. Bilboko historiaren atal ezezagunak'



# Infernua Artxandan

## Hektor Ortega

1917an, Sobietar Iraultza egosten zen bitartean, Bilboko udak gori-gori egin zuen. en Gobernuak. Istilu larrietan hogeit bat hildako izan ziren.

80 urte dira ehunka miliziar eta gudarik Artxandako magaletan faxismoaren aurkako azken eginalak egin zituztela. Lau egunez eutsi zioten armada askoz ahaltsuagori, muino txiki hori Bilbo babesteko azken harrisia bilakatu-ta.

Miliziar eta gudariek egindako balentria ikaragarria gomutatu nahi dugu orain: ekainaren 16etik 19ra Artxanda gainean eta Txorierrri aldeko hegian jarritako tropa errepublikazaleek zelán eutsi zieten Francoren armadaren oldarrei. Dena galduta zegoela zirudie-nean, azken hatsa eman arte borrokatu ziren.

Gomutara ekarri nahi dugu, bai, pasarte hori, baina protagonista baten ahotik: Iñaki Alkain umietar-raren ezpainenatik. *Gerrateko ibillerak* liburuan kontatu zuen. Antonio Zabalak jaso zuen bere testi-gantza eta Auspoa sailean argitaratu zuen. Gaur egun interneten da-go, dohainik eskuragarri nahi duenarentzat.

Alkain Ixtarkundia batailoian zegoen. Arratiatik Bilbo defendat-zera eraman zuten. Begoñako eliz-atatik igaro zen lehenengo Joxeinazio Etxeberria bere lagun handia-rekin batera. "Oso eliz polita da. Etxeberria, ni eta beste asko eta askok, lehenengo, eliz hartan sartu eta Ama Birjiñari geren errezoak egin genizkion. Gero, Artxandako mendi aurreko gañetan jarri giñan, azken juizioa balitz bezela". Han hiru egun gomutagarri egin zituz-ten jo eta ke muino apal horretan etsaiaren eraso bortitzei eusten. Laugarrenean amore eman behar izan zuten eta gero, Bilbotik ezin irtenda gelditu ziren. Orduan hartu zuten preso.

Baina goazen orain Bilboko de-fentsaren kontakizunera. Alkain eta bere konpainiako mutilak Art-xandako Derio aldeko mendi he-

galean zeuden, San Roke ermitatik ez-kerraldera. "Gu ge-ren lekuetan jartze-rako, Derion barrena bazetozen, Artxanda hutsik zegoela ustetan.

Baian gu ordurako han geun-den, egunsentian jarriak, geren az-ken amasak emateko prest". Sua berehala hasi zen. "Aurretik beren tankeak zituzten gure etsaiak. Guk, ordea, oso esku bonba ederrak ge-nituan, eta, inguratu ziranean, bi edo hiru berehala zauritu eta ma-txuratu genituan. Orduan, beste guziak atzeratu egin ziran. Hartu zuten nahiko jipoi lehenbiziko ekiñaldian". Lehenengo eraso eguna horrela amaitu zen, lai-noari esker etsaien hegazkin gutxi zebilela.

Ez ahaztu faxisten armada-ren nagusitasunaren giltzarri bi ondoko hauek zirela: artilleria eta hegazkinak. Biharamuna, "goizetik laino xamarra izan zan. Baina eguerdi aldera ia dana argitu zuan", eta faxisten hegazkinak berehala hasi ziren "jo eta ke bonbak bota eta bota". Egun gogorra, benetan. Honela kontatu zuen: "Artxandako hotel sonatua laster apurtu zuten abioi hoiek eta *ocho con ocho* kañoi ale-manak. Gu, berriz, hantxe, etsaia-ren tankeekin borrokan. Piñudi tar-tean bazetorren tanke bat, harrap-atzten zituan pinu zugaizak bo-teaz. Baina nere lagun trebe ba-tek, haren atzeko aldera lurrean arrastaka joanda, bi bonbarekin zi-lipurdika eta amilka bota zuan. Or-duan, haren atzetik zetozenak, ika-ratu eta alde egin zuten.

Borrokaldi latzen ondoren, "gu-re eskubitik eta gorago eta aurrera-go zegoan San Roke ermita txikia besterik etzuten egun hartan har-tu".

Hirugarren egunean, ostera, lai-noa barik argitasuna nagusitu zen, faxisten hegazkinen mesederako. Alkainek idatzi zuenez, "hasi dira abioiak eten gabe bonbak tira eta tira. Baita beren artilleri guzia ere, eta ocho con ocho txarrena, fusillarekin bezin azkar tiratzen baituzten". Artxandako defentsak



Ane Pikazaren ilustrazioa

ez zeukan zerekin erantzun, "kañonazo bat bakarrik ez baitzuan tira goiz guzian. Gu danok hortzetan eta ezpainenat ziri bana hartuta, muinak eta belarriak hango danbarr-eko-hotsarekin ez lertzearren".

Ikaragarria izan zen. Alkainek ederto azaldu zuen: "Halako infer-nurik izan liteke, baiña zaila izan-go da berriro ikustea. Hura zan Artxandako mendiaren dardarra! Ikusi gabe ez da sinestekoa ere. Gehiago ez dedilla behin ere gerta-tu".

Alkainen kontakizunaren arabe-ra, egun hartan faxistek Artxanda gaineko bidea hartu zuten eta gale-rra handiekin gudariak eta milizia-rrak atzeraka erretiratu ziren, Deustura eta Bilbora. Eta kontaki-zun kitzikagarria erantsi zuen libu-ruan: Etxeberria bere adiskidea baionetakadaz zelán hil zuten iku-si zuen Alkainek. Eroaldi une ba-tez, umietarrak atzera egin zuten,

lagunaren bila, baina faxisten tan-keak topatu zituen. Lehenengoan aurretik pasatu zen eta, har-rigarria, ez zioten tiro egin. Ihes egiteko probetxatu zuen. Oztar-ozta, gudarien aldera heldu zen. Hurrengo egunean hartu zuten preso, lehen esan legez, Bilbotik nondik irten ez zeukatelako.

Gerra amaituta eta herrira itzuli-ta, Francoren tropekin ibilitako umietar batek galdetu egin zion: "Zer-nola ibili hintzan Bilboko Artxanda mendi gainean?". Eta Alkainek: "Motel, motel... Han galdu nian lagunik handiena ere... Baina zergatik galdetzen didak hori?". Eta umietarrak atzera: "Aurreneko tankean ni nintza-lako..."

GEHIAGO JAKITEKO:  
- Alkain, Iñaki / Zavala, Anto-nio: *Gerrateko ibillerak (I)*. Auspa. Donostia. 1981.

**Gomutan. Bilboko historiaren atal ezezagunak** liburua, Bilboko Udaletxea, Erroa argitaletxea, Bilbo Hiri Irratiaz eta BilbaoArte Fundazioaren laguntzari ezker argitaratu da, eta liburu hortatik atera dira ondoko testu eta irudiak

Artxandako borroka frontea, San Roke aldean. Argazkia: Indalecio Ojanguren / Gurejipuzkoa.eus



**Gomutara ekarri nahi dugu pasarte hori, baina protagonista baten ahotik: Iñaki Alkain**



**MUSEO BELLAS ARTES BILBAO**

Hasta el 13 de septiembre

*Ameztoy.*  
Vicente Ameztoy

Hasta el 15 de junio

*Beruete, Regoyos y el paisaje.*


Hasta el 30 de diciembre

*ABC.*  
*El alfabeto del Museo de Bilbao.*

Hasta el 7 de junio

*Piedra y cielo.*  
Víctor Erice.

\* [www.museobilbao.com](http://www.museobilbao.com)



**GUGGENHEIM BILBAO**

- *Richard Artschwager*

- *La pintura como campo experimental, 1948-1958.* Lygia Clark

- *7 Fragmentos.* William Kentridge.

- *Olafur Eliasson: en la vida real.*

La fecha de finalización de las exposiciones está pendiente de revisión

\* [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

**EUSKAL MUSEOA/ MUSEO VASCO**

*Anthology*

Manuel de Gotor.

Hasta el 30 de agosto

\* [www.euskal-museoa.eus](http://www.euskal-museoa.eus)



**NOR DA? / ¿QUIÉN ES?**



**PREGUNTA:**

REFERENTE DE LA CANCIÓN DE AUTOR ESPAÑOLA ADEMÁS DE PINTOR, ESCRITOR, ESCULTOR Y CINEASTA. CREADOR DE *AL ALBA* Y RECIENTEMENTE FALLECIDO

Enviar la respuesta a Periódico Bilbao. Plaza del Ensanche, 11, 48009 Bilbao. El plazo finaliza el 28 de mayo y se sorteará una reproducción de la farola de Bilbao entre las personas acertantes.

La ganadora del pasado mes fue **MARÍA PILAR GUTIÉRREZ ORTEGA**, domiciliada en BILBAO.

La respuesta correcta era: "RAY CHARLES"

**ARTE GIDA / GUÍA DEL ARTE**



**AZKUNA ZENTROA - ALHÓNDIGA BILBAO**

(Plaza Arrikiar, 4)

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques.*  
Hasta el 10 de mayo. [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

**CARRERAS MÚGICA**

(Heros, 2)

Jorge Satorre.

*Chamorra negra, sudadera gris.*

Hasta el 15 de mayo

[www.carrerasmugica.com](http://www.carrerasmugica.com)

**LUMBRERAS** (Henao, 3)

*Neofiguración Vasca.*

Hasta el 15 de mayo

[www.galerialumbreras.com](http://www.galerialumbreras.com)

**VANGUARDIA**

(Al. Mazarredo, 19)

Javier Pérez. Desde el 22 de mayo  
[www.galeriavanguardia.com](http://www.galeriavanguardia.com)

**SALA REKALDE**

(Al. Recalde, 30)

Cristina García Rodero.

*Con la boca abierta.* Hasta el 17 de mayo

Iván Gómez.

*La noche salva.* Hasta el 24 de mayo  
[www.salarekalde.bizkaia.net](http://www.salarekalde.bizkaia.net)

**SCGALLERY**

(Cortes, 4)

*Cuarentena.* Colectiva Hasta el 15 de mayo  
[www.scgallery.es](http://www.scgallery.es)

**YIMBY SOTA** (Gran Vía, 45)

Jon Mao. *Siluetas desoladas.*

Hasta el 15 de junio  
[www.yimbysota.com](http://www.yimbysota.com)